BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/04/19

# Lehendakariak eta Batzar Nagusietako presidenteak lore eskaintza egin dute Auschwitzeko Kontzentrazio Esparruan

Bidaia ofizialeko lehenengo egunean, Lehendakaria Gernika eta Auschwitzen inguruko nazioarteko topaketa batean izan da euskal eta poloniar gazteekin, Oświęcim herriko kultur unean. Ekitaldiak balio izan du bi herrietan gertatutakoa oroitu, giza duintasunaren errespetuaren irakaspena nabarmendu eta bakezko eta elkarrekin balioetan oinarritutako etorkizuna opatzeko.

Lehendakariak bidaide izan ditu Jonan Fernández Bake eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusia, Marian Elorza Kanpo Harremanetarako Idazkaria eta Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria, askotariko batzar taldeetako ordezkariz lagunduta. Europako Tradizio eta Kulturaren Aldeko Elkarteak (ATPCEk) antolatutako topaketan, 500 euskal eta poloniar gazte inguruk parte hartu dute. Aurretik, euskal ordezkaritzak Auschwitz I eta Auschwitz-Birkenau kontzentrazio esparruak bisitatu ditu, eta bertan lore eskaintza egin du.

## IRAGANA ETA ETORKIZUNA

Lehendakariak hitza hartu eta nabarmendu du euskal eta poloniar gazteriaren topaketak "iraganaren irakaspenaren bidez, elkarrekin etorkizun hobearen esperantza izatea" adierazten duela. Ideia hori gogoan, Lehendakariak aditzera eman du iraganak batzen dituela Auschwitz eta Gernika, sufrimenduak eta injustiziak uztartzen baititu. "Ideia batzuk, egitasmo bat edo helburu bat jarri ziren pertsonen duintasunaren gainetik", azaldu du Lehendakariak. Helburu bat lortzeko "dena da zilegi" goiburua izan zuten. Era horretan, "giza eskubideen urraketa, indarkeria, terrorismoa edo gerra" zilegi bihurtzen amaitzen da gehitu du Lehendakariak.

Lehendakariak nabarmendu duenez, hau da une honetako irakaspen baliotsuena: "inoiz ez berriz". "giza duintasunaren errespetua balio gorena da" eta, horietatik, giza eskubideak eratortzen dira, Urkulluk segurtatu duenez. Gazteriaren ekitaldi honetako partaidetzak esan nahi du Gernika eta Auschwitz etorkizun hobe baten esperantzaren ikur ere badirela.

Topaketan, Lehendakariak ez ezik, Oświęcimeko alkateak, Janusz Chwierut-ek, hartu du hitza, baita APTCEko presidente Enrique Villamorrek ere, erakunde horrek antolatu baitu ekitaldia. Euskal eta poloniar gazteek abesti bana kantatu dituzte, eta Auschwitz-Birkenautik bizirik ateratako Bogdan Bartnikowskiren lekukotza entzun ahal izan dute, baita Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko presidente Juan Bautista Mendizabalen hitza ere. Berak azken 80 urtean Euskadin eta, bereziki, Gernikan bizitako gertaerak kontatu ditu.

## AUSCHWITZEKO LORE ESKAINTZA

Gazte topaketaren aurretik, euskal ordezkaritzak, Lehendakaria buru zuela, Auschwitz-Birkenau Museoa bisitatu du, bere baitan bi kontzentrazio esparruak hartzen dituena: Auschwitz I eta

Auschwitz II-Birkenau. 1979an, lursail hau Unescoren Gizateriaren Ondarearen zerrendan sartu zuten.

“Deuseztatze”ko proben 4. Blokea; gauza pertsonalak (maletak, betaurrekoak, gutunak…) biltzen dituen 5. Blokea; “zainketen” 7.a eta “heriotzaren” 11. Blokea bisitatu ondoren, poloniar preso politikoen erailketak izaten ziren gunera hurbildu da euskal ordezkaritza, “Heriotzaren Hormara” alegia.

Bertan, Iñigo Urkullu lehendakariak eta Bizkaiko Batzar Nagusietako presidente Ana Otaduik bi lore eskaintza egin dituzte biktimen oroitzapenean. Euskal ordezkaritzak minutuko isilunea egin du errespetuaren seinale.

Ondoren, Auschwitz II-Birkenau Deuseztatze Esparrua bisitatu dute (175 hektarea), 1941ean eraikia: bertan altxa zituzten Europa okupatuko deuseztatze masiborako instalazio handienak: naziek esparrura deportatutako judu gehienak erailtzeko baliatutako gas ganberak.
Auschwitzeko museoko datuen arabera, Europako bazter guztietatik deportatutako 1,3 milioi pertsona (juduak, ijitoak, poloniarrak…) pasa ziren kontzentrazio esparru hauetatik. 200.000 pertsonak biziraun ahal izan zuten eta, beraz, presoen % 80 erail egin zituzten, gehienak juduak (1 milioi).

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
19/04/2017

# El Lehendakari y la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia realizan una ofrenda floral en el Campo de Concentración de Auschwitz

En el primer día de viaje oficial, el Lehendakari, Iñigo Urkullu, y la Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, han asistido a un encuentro internacional de jóvenes vascos y polacos en torno a Gernika y Auschwitz, en el centro de Cultura de la localidad de Oświęcim. El acto ha servido para recordar lo acontecido en ambas localidades, destacar la enseñanza del respeto a la dignidad humana y compartir el deseo de un futuro en paz y asentado en valores.

El Lehendakari ha estado acompañado del Secretario General para la Paz y la Convivencia, Jonan Fernández; la Secretaria General de Acción Exterior, Marian Elorza; y la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia. Otadui ha acudido junto con representantes de todos los grupos junteros presentes en la Mesa de la Cámara vizcaína. En el encuentro, organizado por la Asociación Pro Tradición y Cultura Europea (APTCE), han participado cerca de 500 jóvenes vascos y polacos. Previamente, la delegación vasca ha visitado los campos de concentración Auschwitz I y Auschwitz-Birkenau donde se ha realizado una ofrenda floral.

## PASADO Y FUTURO

El Lehendakari, en su intervención, ha subrayado que el encuentro de la juventud vasca y polaca simboliza "la enseñanza del pasado para compartir la esperanza de un futuro mejor". Con esta idea, el Lehendakari hacía referencia a que Auschwitz y Gernika "están unidos en el pasado", ya que comparten el sufrimiento y la injusticia. "Se antepusieron unas ideas, un proyecto o un objetivo a la dignidad de la persona" justificando el "todo vale" para conseguir un objetivo. Este hecho, ha añadido el Lehendakari, "acaba legitimando las vulneraciones de derechos humanos, la violencia, el terrorismo o la guerra".

El Lehendakari ha destacado que la enseñanza valiosa de este encuentro es: "nunca más". "El valor supremo es el respeto y la promoción de la dignidad humana", del que derivan los derechos humanos, ha asegurado Urkullu. La participación de la juventud en este acto supone que Gernika y Auschwitz también representen la esperanza de un futuro mejor.

En el encuentro, además del Lehendakari, han tomado la palabra el Alcalde de Oświęcim, Janusz Chwierut, y el presidente de APTCE, Enrique Villamor, entidad organizadora del evento. Los jóvenes vascos y polacos han interpretado sendas canciones y se ha podido escuchar el testimonio de Bogdan Bartnikowski, superviviente de Auschwitz Birkenau, así como la voz del Presidente de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, Juan Bautista Mendizabal, que ha relatado los acontecimiento vividos hace 80 años en Euskadi, y en especial, en Gernika.

## OFRENDA FLORAL EN AUSCHWITZ

Previo al encuentro juvenil, la delegación vasca, encabezada por el Lehendakari, ha visitado el Museo Auschwitz-Birkenau que comprende los terrenos de dos campos de concentración: Auschwitz I y Auschwitz II- Birkenau. Este terreno fue incluido en 1979 en la lista del Patrimonio de la Humanidad de la Unesco.

Tras visitar el bloque 4 "pruebas de "exterminio", el bloque 5 donde se encuentran objetos personales (maletas, gafas, cartas…), el 7 de "cuidados sanitarios", y el bloque 11, el de "la muerte", la delegación ha acudido al "Paredón de la Muerte". La mayoría de los asesinatos cometidos en este lugar, fueron de presos políticos polacos.

El Lehendakari Iñigo Urkullu y la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, han realizado sendas ofrendas florales en recuerdo a las víctimas. Toda la delegación ha guardado un minuto de silencio como símbolo de respeto.

Posteriormente, han visitado el Campo de Exterminio Auschwitz II-Birkenau, de 175 hectáreas, construido en 1941 donde se alzaron las mayores instalaciones de exterminio masivo de la Europa ocupada: las cámaras de gas donde los nazis asesinaron a la mayoría de los judíos deportados al campo.
Según datos del Museo de Auschwitz, por el complejo de estos campos de concentración pasaron 1,3 millones de personas deportadas de todos los rincones de Europa (judíos, gitanos, polacos…). Sobrevivieron 200.000 personas, por lo que más del 80% de los presos fueron asesinados, la mayoría, (1 millón), fueron judíos.